

GIZARTE LANGINTZAREN GARAPENEAN
IZAN DIREN GAKOAK
ETA
EZTABAIDA NAGUSIAK

Lehenengo maila
Gizarte-langintzaren oinarriak eta metodologia
Julen Zabalo Bilbao

AURKIBIDEA

SARRERA	2
GIZARTE LANGINTZAREN AURREKARIAK	2
Juan Luis Vives	2
San Bizente Paulekoa	3
XVII eta XVIII. mendeak	4
GIZARTE LANGINTZAREN SORRERA MARKOA	4
COS (Charity Organization Society) erakundea	4
Mary Richmond	5
Settlement mugimendua	6
Jane Addams	6
COS erakundearen eta Settlements mugimenduaren arteko berdintasunak eta desberdintasunak	7
Gizarte-langintza XX. mendearen hasieran	8
Gizarte-langintza ongizate estatuan	8
ONDORIOAK	9
BIBLIOGRAFIA	9

SARRERA

Gizarte-langintzan eman den garapenaren inguruko gako nagusiak ematea da lan honen helburua, gizarte-langintzaren inguruan eman diren eztabaida nagusien inguruan hausnartzeaz gain. Honetarako, hiru atal desberdin bereiztuko ditugu: gizarte-langintzaren aurrekariak, gizarte-langintzaren sorrera markoa eta gizarte langintzaren instituzionalizazioa.

GIZARTE LANGINTZAREN AURREKARIAK

Gizarte-langintzaren aurrekariak, Boris Limak egindako sailkapenean Fase aurreteknikoa bezala ezaguna den zatian kokatzen ditugu, hau da, antzinateko gizarteetatik XVIII.mendera arte.

Erdi Aroaren amaieran ekonomiaren biziberritzeak gizarteari aldaketa erabakigarriak ekarri zizkion. Garaiko egoera politikoari dagokionez, estatu bateratu eta absolutua dago, zeinetan arrazionalizazioaren goraipamenak administrazioari ardura gehiago ematen dion. Aldiz, ideiei dagokionez, humanismoa da nagusi.

Aipatutako biziberritzeak baserritik- hirirako migrazioa eragin zuen, ondorioz, eskale kopurua handituz. Arazo horren aurrean, bi proposamen dira nagusi:

1. Juan Luis Vives


1492n jaio zen eta 1540an hil zen. XVI. mendeko humanista handienetako bat izan zen, denbora berriekin bat zetorrena. Vivesek gehien bat merezimenduaz hitz egiten zuen. 1526an argitaratu zuen liburuan, *De subventionem pauperum*, bere ideia nagusiak bateratu zituen.

Azaltzen den ideia nagusia liburuan zera da, pobreei laguntza eman behar zaiela baina ez karitateaz soilik. Ondorio modura atera zuen ongintza egitea Estatuari dagokiola eta ez Elizari.

“Vives plantea la secularización de la atención de los necesitados, y hace responsables de ello a los poderes políticos. Considera la necesidad de investigar a los pobres, la utilidad del trabajo, la

formación y educación para los pobres válidos, la división del territorio y el mantenimiento de los no válidos ya sea a través de un subsidio o mediante su internamiento en «hospitales». (García, T. F., eta Bracho, C. A. *Introducción al trabajo social* (2014):65.orria)

Humanista honen ekarpenik handienetakoa sailkapena izan zen, hots, laguntza ematen dugunean jakinaren gainean egon behar garela nori eta zertarako ematen diogun.



2. San Bizente Paulekoa

Frantzian jaio zen 1581ean eta bertan hil zen 1660an. Elizaren barrutik aurreko mendetik zetozen ideia berriei erantzunak eman zizkion praktikoki.

1633an instituzio bat sortu zuen *Karitateko Damak* izenpean. Instituzio horretan emakume aberatsak biltzen ziren behartsuei laguntza emateaz arduratzeko, geroago, *Karitateko Alabak* izeneko erlijio-ordena sortu zuen honen helburu nagusia karitatea zelarik: behartsuekiko, presoekiko, hilzorian zeudenekiko...

Berriztapen asko bultzatzeaz gain, gizarte-langintzaren aurrekaritzat hartzen da, ez zuelako karitatea modu ez-diskriminatuan egin nahi. Berak zioen arazoaren arrazoiak desagertu arte ez zirela ondorioak sendatuko eta horregatik, arazoaren errora joan behar zela.



3. XVII eta XVIII. mendeak

Ekonomia forma berri bat azaldu zen XVIII. mendearen amaieran: kapitalismo industrialia. Industrializazioaren eragina bizitzaren eremu guztietara zabaldu zen, aldaketa garaia zen.

Langileriaren egoera eskasak, nobleziaren pribilejioei amaiera emateko burgesia eta langileria parte hartzailea bihurtu zituen. Dena den, bien arteko gatazkak sindikatuak sortu zituen. Burgesiak liberalismoa zuen ideologiatzat, langileriak aldiz sozialismoa eta anarkismoa.

Lana ulertzeko modu berriak azaldu ziren. Lana umilagarria izatetik, duina izatera aldatu zen eta lana ez egitea lotsagarritzat hartu zen. Pobrezia ulertzeko modua ere aldatu zen, subjektu berriak sortzen hasi ziren lanari emaniko duintasunarekin: burgesian alde batetik pobreak jendartetik kanpo nahi zituztenak zeuden eta horretarako errepesia erabiltzen zutenak bestetik, pobrezia kontzietea aldarrikatzen zuten langileek dintasuna eta eskubideekin batera. Aldaketa garaia izanik, gizarte langintza ulertzeko moda ere aldatu zen. Gizarteak hartu zuen garrantzia, baina erlijio izaera ez zen guztiz galdu oraindik.

GIZARTE LANGINTZAREN SORRERA MARKOA

1. COS (Charity Organization Society) erakundea

COS elkarteak, Charity Organizatio Society, 1869an sortu zen Londresen bereizketarik gabeko karitateari aurre egiteko. Elkarte filantropikoa zen, hasieran elza protestanteari

lotua zegoena. Erakunde honek laguntza eratu nahi zuen, eta merezi zuenari bakarrik eman, baita ere diru-laguntzak murriztu behar zirela uste zen eta beharrezkoa ikusten zuten alferrikako gastuak murriztea.

Norbanakoa bere pobreziaren erruduna dela zioen, gobernuaren esku-hartze diskriminatuaren kontra zegoen, pobreziatik irteteko ardura pobrea berak baitu. Esperientzian oinarriturik erakundearen ohartu ziren planteamedu okerra defendatzen ari zirela, norbanakoari ezin zitzaiola pobreziaren errua leporatu, beste faktoreek eragina zutela ohartu ziren. Hortik bi ildo azaldu ziren COSen: hasierako ideiak defendatzen zituztenak eta bestetik, gizartearen eraginari garrantzi berria ematen hasi zirenak. COSek hiru irizpide jarraitu zituen hala ere: karitatea eratzea, pobreei tratu gizatiarra ematea eta kasu bakoitza aztertzea, benetako arrazoiak ikusteko.

Erakunde honek, ekarpen handiak egin zituen: Hainbat ekarpen egin zituen: Sentimenduan, penan, oinarritutako karitate arautu gabea kaltegarria izan daitekeela esaten zuen, laguntza behar ez duen batek eskatzeak, pobretasuna, lan profesional bihur dezakeelako. Horrez gain. Karitatea eratzea eta sistema publiko eta pribatuaren arteko harremana bultzatu zuen.

Pobretasunaren kanpoko eta barruko arrazoiak aztertzen zituen. Gizarte langintza, norbanako talde eta komunitate lanetan eratzen hasi zen eta profesionalaren prestakuntzarako zientzia psikosozialaren ekarpenak onartu zituen.

2. Mary Richmond

Mary Richmond Estatu Batuetan jaio zen 1861ean eta bertan hil zen 1928an. Eraketarako gaitasun handiagatik nabarmendu zen, lehenengo emakumea izan zen COS zuzentzen. Oso garrantzitsua zela uste zuen prestakuntza, horregatik garrantzi handia eman zion ere gizarte-langintzaren prestakuntzari. 1989an, irakaslea izan zen gizarte-langileetzako eratu zen Eskolan New Yorken.

Ikerle eta idazle moduan ere ibili zen. 1917an, gizarte-langintzan erabakigarria izan zen

lana argitaratu zuen: *Social Diagnosis*. 5 urte beranduago, 1922an, *Zer da Kasuetako Gizarte-langintza?* argitaratu zuen.

Gizarte-langintza hobekuntzekin lotzen zuen. Gizarte arazoak lantzeaz gain zioen gizarte-langileak salatu egin behar dituela arazo horiek. Lan handia egin zuen adin txikikoen lana eragozten. Horrez gain, feminismoan ere oso nabarmena izan zen, emakumeentzako boto eskubidearen alde lan egin baitzuen.

Lehen aipatu bezala, COSek gehienbat banakoko bidea jarraitzen du eta Mary Richmondek *El caso social individual* izeneko bere liburuan azaleratzen du:

“el tratamiento prolongado e intensivo que desarrolla la personalidad, reajustando consciente e individualmente al hombre a su medio social.” (Mary Ellen Richmond, (1982): 9.orria)

Metodo induktiboa erabiltzen du, honek norbanakotik gehiengora aldatzea errazten baitu.



3. Settlement mugimendua

Settlement mugimendua egoitzen mugimendua zen. Lehenengoa, 1884an eraiki zen. Londreseko auzo pobre eta degradatu batean, Barnett senar-emazteen eskutik. Ohartu ziren, pertsonaren nortasuna eta sendotasuna hobeto lan zitekeela kolektiboki. Laguntza ez diskriminatua zen eta kolektiboki sortua zegoen, asmo nagusia talderik behartsuenei laguntzea zen. Laguntza-helburu orokorra zeukaten, baina ez zute jarraitzen metodo jakin bat COSek egiten zuen bezala.

Filantropiari kritika egiten dio eta aterpe modura erabiltzeaz gain, batzeko eta iasteko leku gisa erabiltzen zen; ez baitze derrigorrezkoa eskolara joatea. Hezkutzari garrantzi handia eman zitzaion eta burgesiaren pentsamendua zute: pobreak pobreak direla diruz eta espirituz.

4. Jane Addams

Jane Addams Estatu Batuetan jaio zen 1860an eta 1935an hil. Mugimenduak arrakasta handia eta azkarra izan zuenez, laster zabaldu zen Ingalaterrako beste leku batzuetara eta denbora gutxiren barruan, Estatu Batuetara ere zabaldu zen, arrakasta handiagoa edukiz eta mugimendua sendotuz.

Horregatik ,1886an Settlements mugimendua ezarri zuen Jame Addamsek Estatu Batuetan, Chicagon *Hull House* izenekoa sotu zuenean. Politikan aritu behar zela konturatu zen berak zituen gizarte helburuak lortu nahi bazituen. Bakearen aldeko mugimenduekin lotu zen eta 1931ean Bakearen Nobel saria eman zioten.

Bere ekarpenik garrantzitsuenak zientifikotasuna eta profesionaltasuna txertatu nahi izatea zen, baita gizarte-arazoekiko konpromiso militantea. Jane Addams gizarte langintzaren aitzindarietako bat dela esan daiteke.

“La razón y las matemáticas, el pensamiento racional y la investigación sistemática serían las que ayudaran a la humanidad a ver el sentido de la naturaleza y la sociedad ... no la revelación. “ (Damián Salcedo Megales, *Los valores en la práctica del Trabajo Social* (1999): 138.orria)



5. COS erakundearen eta Settlements mugimenduaren arteko berdintasunak eta desberdintasunak

Bien artean hainbat antzekotasun zeudela nabaria zen: biek uste zuten ikuspuntu burges batetik pobreak pobreak direla diruz eta espirituz, bi elkarteak pribatuak dira eta biek jatorri berdina dute. Programa eta sistema bakarra zuten biek, laguntza morala eskeintzen zuten eta gobernuaren esku-hartzeen kontra zeuden.

Hala ere desberdintasunak ere bazeuden: COSek batez ere banakako bidea egiten zuten laguntza diskriminatzailea eta materiala eskeintzen zuten, burgesiatik sortu zen eta interesak kobratzen zituen. Settlementsek berriz, komunitateko bidea egiten zuten, laguntza ez diskriminatzailea eta moral edo espirituala eskaintzen zuten, burgesiaren eta langileriaren arteko lanaz sortu zen eta elkartasuna zen hauen oinarri.

6. Gizarte-langintza XX. mendearen hasieran

XIX. mendean, gizarte-langintzak zientifikotasuna aldarrikatze zuen eta horregatik, goi mailako lehenengo ikasketak hasi ziren zabaltzen. Honela, gizarte-langintza aberastu zen. Gizarte-langintza espezializaziora eta profesionaltasunera gidatu zenez, ogibide bihurtu zen eta karitatea eta boluntario-lanetik haratago joan ziren. XX. mendearen erdialdean estatuak gizarte-arazoetan esku hartu zuen.

7. Gizarte-langintza ongizate estatuan

XX. mendean, XIX. mendeko estatu liberala, ongizate-estatu izatera igaro zen. Lankidetasun giroa aldarrikatzen denez, gizarte gaiak sindikatuek, ugazabek eta estatuak lantzen dituzte. Ongizate estatuaren ezaugarri nagusiak hauek liriateke: biztanle orori gutxieneko baldintza sozial eta ekonomikoak ziurtatzen zaizkie, gainera, biztanleen arteko desberdintasun sozial eta ekonomikoa murrizteaz gain, pobrezia ere murriztu nahi da. Horregatik, estatuaren gastu publikoa hazi egiten da, arazoei aurre egiteko erabiltzen baita.

Guzti honek, gizarte-langintzaren instituzionaltzea dakar. Estatuari eskatzen zaio gizarte-arazoan arduradun egiteko eta horretarako gizarte-langileen beharra izango dute. Prozesu honetan, hiru ezaugarri nabarmendu daitezke: estatuaren parte hartzeak, mugak eta arauak egotera gidatzen du, prestakuntzaren eskaera eta giza eskubideen garrantzi berria, non aldarrikapen formalak egiten diren.

70. hamarkadako ekonomia krisiak eragin handia izan zuen gizarte-langintzaren erronketan, ekonomiaren zikloa beherantz joan zen eta honek arazoak ekarri zituen. Ongizate estatuak hainbat eraso jasan zituen horregatik: eraso ideologikoak, juridikoak eta politikoak. Ongizate estatuan gobernu neoliberalek zein kontserbadoreek eragin handia izan zuten. Gizarte-langintza mehatxatua zegoen, pribatizazioa boluntarioen ekimena baitzen. Lehengo arazoek krisia handitu eta sakondu zuten, ondorioz, diru-laguntzek behera egin zuten eta honek kalte egin zion gizarte-langintzari.

ONDORIOAK

Hasteko, esan beharra dago, Gizarte Langintzaren historian eman den garapena positiboa izan dela. Gaur egun dauzkan helburu argiak, garapen honetan eragin duten pertsona eta erakundeen eskuhartzearen ondorioz jarri ziren.

BIBLIOGRAFIA

- García, T. F., eta Bracho, C. A. (2014). *Introducción al trabajo social*. Alianza Editorial.
- Megales, D. S. (1999). *Los valores en la práctica del Trabajo Social*. Narcea Ediciones.
- Richmond, M. E., Iñurrieta, I., Eguzkitza, I. R., Berrio-Otxoa, K., eta Correa, A. B. (2012). *Zer da kasuzko gizarte-langintza?: sarrera gisako deskribapen bat*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Zabalo, J. *Gizarte-Langintzarako sarrera*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.